




# Nola jaulkitzen da Izenperen ziurtagiria softwarean?

Eskaera izapidetutakoan, email batean jasoko ditugu eman beharreko pausoak eta ziurtagiria jaulkitzeko fluxurako esteka.



Igorpenaren unean SMS bidez iritsi zaigun **CUR (erregistro-kode bakarra)** eskatuko digu.



Prozesuak errepikatuko digu jarraitu aurretik **GCSC softwarea instalatu behar dugula**, lehendik instalatuta ez badugu. Ingurune korporatiboetan, baliteke instalazioa administratzaile-profiletara mugatuta egotea eta laguntza behar izatea instalatzeko.



Egiaztatu eta datuak berretsiko ditugu; datu horiek izango dira ziurtagirian agertuko direnak.

Pauso honetan, instalatu dugun GCSC softwarea irekitzea onartu behar dugu.

Une honetan, beste leiho batean irekiko den aplikazio batean jaulkiko da ziurtagiria.



Instalatu dugun edukitzailea irekiko da eta 3 pauso izango dira:

1. Ziurtagiria sortzea
2. Gordetzea
3. Pasahitza jartzea

Garrantzitsua da pasahitza gogoratzea instalatzeko eta erabiltzeko!

Ziurtagiria prest dago esportatzeko eta erabiltzeko.

Gainera, software-edukitzailean gordeta geratuko da, behar duzun guztietan deskargatu ahal izateko.

